

**IGORRE.** 2003ko kontuetan 360.607 euro bideratu gura dabez egitasmoa martxan jarteko

Aitziber Basauri

Igorren, urte honen barruan hasi gura dabe eregiten kultur etxea. Urrian hasi gura dabez beharrak, Jose Ipiñazar alkateak azaldu dauenez. Eta egitasmoa martxan jarteko, gertetan diharduezan 2003ko udal aurrekontuen barruan, 360.607 euroko diru-atala zehaztu gura dabe. Halandabe, kultur etxeko proiektua egia bihurtzeko Udalak 3 bat milioi eurotik gorako inbertsinoa egin beharko dau. Horri aurre egiteko laguntzak lortu gura dabez udal arduradunek, eta lau bat urtetan bananduta egin gura deusie aurre aurrekontuari. Abenduan onartu eban Udalak egitasmoa.

Kultur etxea Eleixalde kalean eregiko dabe, udaletxearen alboan, hain zuzen be; eta, beharrak hasi eta gero, urte biren barruan gertu egongo diralakoan dagoz. Orain, beharrak emoteko tramitazioagaz hasi gura dabe.

**Kultur etxeak hainbat zerbitzu batuko dauz, solairu bitan**

Hainbat zerbitzu batu gura dabez kultur etxe barruan. Behe solairuan —1.404 metro koadro izango dauz— 500 bat pertsonendako aretoa egokitu gura dabe; baita erakusketa aretoa, ordenagailu gelea eta haurrendako irakurketa gelea be. Halantxe azaldu dau Udaleko arduradun nagusiak. Lehenengo pisuan —785 metro koadro hartuko dauz—, barriz, ikasteko gelea, liburutegia eta hainbat tailer gertetako tokia egokituko dabe, egitasmoan azaltzen denez. Era berean, solairu bitan bananduta kultur eta kirol alkarteendako bost gela atonduko dabez. Aldagelak eta biltegia egokitu gura dabez, besteren



AITZIBER BASAURI

Eleixalden, udaletxearen alboan, eregi gura dabe kultu etxea. Orain, autoak lagateko aparkalekua dago.

## Kultur etxea eregiten urri aldera hasi gura dabe

Urte biren barruan kultur etxea gertu egongo dala uste dabe

artean, sotoan. Zerbitzu horrek 816 metro koadroan atonduko dabez.

**Azpiegitura falteari aurre egin gura deusie**

Herritarren partetik kultur etxea eregiteko eskaera asko jaso dabezala azaldu dau Ipiñazarrek. «Urte asko daroaguz kultur etxearen egitasmoa aurrera atara guran; herritarrek be hainbat eskaera egin deuskuez horren haritik. Izan be, azpiegitura faltea dago». Udaleko arduradun nagusiak generatu

**ALKARTEENDAKO LEKUA**

**Kiroldegian batzen dira orain laupabost alkarte; halandabe, herriko hainbat taldek ez daukie lokalik**

dauenez, kiroldegian batzen dira 4-5 alkarte, eta euren lokal propioa daukie beste bik. «Baina, herriko alkarte askok ez daukie lekuri alkartzeko».

Azpiegitura falta horri aurre

egiteko hasi gura dabez albat arinen kultur etxeko beharrak. Hori dala-eta Eleixalden dagoen frontoi inguruko eta plazako urigintza beharrak be atzeratu egin dabezala generatu dau Igorreko alkateak. «Gure asmoa inguru hori guztiori atontzea da; era berean, frontoiaren norabidea be aldatu egin gura dogu».

Igorreko Udalak urigintza behar horreek aurrera eroateko egitasmoa gertetan dihardu orain, Ipiñazarrek azaldu dauenez.

**ELORRIO.** Zezeilaren 21era artean aurkeztu leitekez argazkiak udaletxean

## Argazki lehiaketa eratu dau Lilika emakume taldeak

A.B.

Elorrioko Lilika emakume taldeak argazki lehiaketa eratu dau. *Emakumeok hemen gaude, eraikitzen eta dibertitzen, eredu barriak sortzen.* Gai horixe izan beharko dabe kontuan parte-hartzaileek eta argazkiak zuri-baltzean zein koloretan aurkeztu leitekez. Gura dauen edonori edegita dago lehiaketa eta modalidade bitan emongo dituez sariak. Argazkirik onenak 200 euro irabaziko ditu, eta bildumarik onenak, 300 euro. Halantxe azaldu dabe antolatzaileek. Lau argazkiko bilduma baka-

rra aurkeztu leikie parte-hartzaileek, eta ez dabe onartuko beste lehiaketaren baten saritutakoak. Ezta inoiz argitaratutako beharrak be. Argazkiek, gixienez, 18x24 neurria izan beharko dabe, eta, gehienez, 30x40. Era berean, 30x40 zentimetroko kartulina baltz baten gainean aurkeztu beharko dira. Argazki bakotzak bere leloa eroango dau eta argazkiagaz batera, kartazal zarratu baten barruan, argazkiari jarritako leloa, egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia zehaztu beharko dabe parte-hartzaileek. Elorrioko udale-

txea (Gizarte-ekintza), Gernikako Arbola plaza, 48230 Elorrio helbidera bialdu leitekez; eta beharrak aurkezteko epea zezeilaren 21ean amaituko da.

Martiaren 7an jakin eragingo ditue irabazleak, Euskadiko Kutxako kultur aretoan 19:30ean. Eta epaimahaiak sariak hutsik lagateko aukerea gordeko dau. Baita sari berezi bat emoteko be. Beharren kalidade teknikoa eta artistikoa, originaltasuna eta gaia islatzeko indarra balorauko dau epaimahaiak. Argazkigintzan eta artetegintzan adituek osatuko dabe epaimahai.

Beste alde batetik, aurkeztutako argazki guztiak erakusketa be egingo dabe martiaren 1etik 15era, Euskadiko Kutxaren kultur aretoan.

**AGENDA****DURANGO**

**Antzerkia:** Atxo fun-fun kafe-tabernan *Bang* antzezlan eskainiko dabe, gaur, Itsaso Elias eta Bea Aberasturi aktoreek. Obrea 22:00etan eskainiko dabe.

**ABADIÑO**

**Berbaldia:** San Blas jaietarako eraturako ekitaldien artean, gaur, etxebizitzan ganeko berbaldia eskainiko dabe Abadiño gaztetxean. Ekitaldia 19:00etan hasiko dabe

**ELORRIO**

**Zinekluba:** Marcelo Piñeyrok zuzendutako *Kamchatka* pelikulea eskainiko dabe, gaur, Arriola kultur aretoan. Filma 20:15ean proiektatuko dabe.

**ERMUA**

**Zinekluba:** Hego-amerikako zinemari

**DURANGO****Sapuetxe gaztetxean 'Prestige'-k eragindako hondamendia izango dabe, gaur, berbagai**

Durango gaztetxeak laugarren urte bete dau aurtun. Eta urteurrena ospatzeko ekitaldiak eratu dabez. Gaur, Galizian *Prestige* petroliontziak eragindako hondamendia izango dabe berbagai. Izan be, *Vision critica del desastre en Galicia* izenburuagaz berbaldia eratu dabe arrastiko 19:00etarako. Horrezaz ganera, bideo emonaldia eskainiko dabe gaztetxeok.

**Maite Salsamendiren oleoak ikusi ahal izango dira Ezkurdiko erakustaretoan**

Durangaldeko Artista Alkar-teak eraturta, Maite Salsamendi artistearen beharrak osatutako erakusketa zabalduko dabe barikuan. Salsamendik margoztutako oleoak Ezkurdiko erakustaretoan ikusi ahal izan dira, hilearen 16ra artean.

**ZORNOTZA****Javier Camararen 'Luz de noche, luz de dia' erakusketa edegiko dabe, gaur, Zornotzan**

Bilboko Javier Camara artistearen *Luz de noche, luz de dia* erakusketa edegiko dabe, gaur, Zornotza aretoan. Biluziak dira gehienbat Camarak aretoan erakutsiko dauzan beharrak, eta zezeila bitartean izango dira bertan. Inaugurazio ekitaldia gaur iluntzean izango da, 18:00etatik aurrera, hain zuzen be.

eskainitako zineklub zikloaren barruan, gaur, *El ultimo tren pelikulea* emongo dabe, Ermua zinemaren. Diego Arsuagaren pelikulea 22:15ean eskainiko dabe. **Erakusketa:** Terese Murga erakustaretoan *Matematikekin jolasean* erakusketa edegiko dabe, gaur. Ohiko ordutegian ikusi leiteke erakusketa. Astebarruan 18:00etatik 20:00etara eta zapatuetan, barriz, 11:00etatik 13:00era. Hilearen 20ra artean izango dabe edegita.

**DURANGALDEA**

**Lehiaketa:** Urruzuno literatur lehiaketa eratu dau Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak ikastetxeetan. Euskerea sustatzeko eraturako lehiaketara prosa eta poesia beharrak aurkeztu leitekez eta DBHn diharduenek parte hartu leikie. Ikastetxe bakotxan zein Hezkuntza Sailean lortu leiteke informazio gehiago. Saria hamar eguneko bidaia izaten da, eta 250 euroko saria. Ikastetxeak be saritzen dabez.